

www.begiko.com

© 2017, Violeta Monreal
© Itzultzailea: 2017, Joseba Santxo Uriarte
© Euskarazko argitalpena:
2017, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.
Legizamon poligonoa
Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.
48450 Etxebarri
Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-44-5
Lege-gordailua: M-19571-2017
Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2018ko urtarrila

Sailaren zuzendaritza:
Joseba Santxo eta Maite Malagón
Edizioa:
Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja
Errealizazioa:
Miren Pellejero
Arte-zuzendaritza:
José Crespo eta Rosa Marín
Proiektu grafikoa:
Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

# Jainkosa izan nahi zuen hirukia

Violeta Monreal



begiko



**MALEVITX** margolariaren artelanak mundua babestu nahi zuen.



**Hiruki laranjak** haizeteetatik
babestu nahi zuen mundua.



**Koloretako irudiek** lurrikaretatik
babestu nahi zuten mundua.



**Koloretako zerrenda lodiek** suteetatik
babestu nahi zuten mundua.



**Koloretako zerrenda meheek** uholdeetatik
babestu nahi zuten mundua.



Udaberriko arratsalde batez, enarak eltxoak jatera irteten diren orduan, **hiruki laranjak** jauzi egin zuen **MALEVITX**en margolanetik kanpora, oihuka zioela:

BADAKIT NOLA BABESTU MUNDUA!

ONDOTXO DAKIT ZER BIHURTU BEHAR DUGUN HORI LORTZEKO!




Koloretako **irudiek** itsu-itsuan jarraitu zioten **hiruki laranjari.**

—Zer bihurtuko gara, orduan? —galdetu zioten urduri.

# JAINKOSA BIHURTUKO GARA! MUNDUA...

UHOLDEETATIK BABESTEKO!

LURRIKARETATIK BABESTEKO!

HAIZETEETATIK BABESTEKO!

SUTEETATIK BABESTEKO!

BESOAK BEHAR DITUT!

ESKUAK BEHAR DITUT!

**Kolore marroiko zerrenda meheek** besoak eta hatzak osatu zituzten.



**Kolore berdeko zerrenda lodia** erdibitu egin zen, mahukak osatzeko.





HANKAK NAHI DITUT!

KORRIKA EGITEKO!



HANKAK
EMATEN BADIZKIDAZUE,
BURU ARGI BATEN BILA
JOANGO NAIZ KORRIKA,
MUNDUA HOBETO BABESTEKO.